

OIARTZUNGO PENTSIODUNEN ELKARTEAK (DUINTASUNA)

OIARTZUNGO UDALBATZARI

Oiartzungo Pentsiodunen Elkarteak, eztabaidatzeko, eta hala balegokio, onesteko, hurrengo **MOZIOA** aurkezten du:

OSAKIDETZAN UDARAKO ZERBITZU PUBLIKOA BERMATZEARI BURUZKO MOZIOA

ZIOEN ADIERAZPENA

Osakidetzan, gainerako bizitzako eremuetan gertatzen den antzera, etorri da uda sasoiko oporrak hartzeko garaia. Halaber, aipaturiko oporrak urtero iritsi arren, beste behin, inolako planifikazio eta aurreikuspenik gabe aurkitzen dira Osakidetzako langileak; ondorioz, urtetik urtera egoera larriagotzen ari da.

Osakidetzak pairatzen duen osasun profesional gabezia ez da soilik uda sasoiari gertatzen, ez da noizean behingo gertakizun bat. Urteetako planifikazio gabeziak eta pertsonal politika desegokiak Osakidetzaren egungo egoera kaxkarrera eraman dute, eta guzti horren ondorioak pairatzen dituztenak herritarrek dira. Osasun langileek ahal duten guztia egin arren, baldintza horietan gero eta zailagoa da kalitatezko arreta mantentzea.

Pandemia hasi baino askoz ere lehenago aurreikusten zen urte hauetan Osakidetzaren jubilazio kopuru altuak egongo zirela. Hala adierazten zuten osasun eragileek, sindikatuek, adituek, ... baita Osasun Sailak ere. Baina urteetan ez zen eta ez da horri aurre egiteko neurririk hartu. Halaber, Eusko Jaurlaritzak Europatik ere ohartarazpenak jasoak zituen behin-behinekotasuna sustatzen duen kontratazio pertsonala ezartzen aritzeagatik, eta horrek Osasun Etxeetan mugikortasun handia, atxikimendu eza eta baldintza kaxkarrak ekarri ditu. Poliki-poliki plantillaren ahultzea ekarri.

Ondorioz, gaur egun gure herrietako Osasun Etxeen egoera, Etenik Gabeko Arreta Guneena edota Emergentziak Erakunde Sanitario Integratuarena jasanezina bihurtu da. Eta Udalei eskatzen dizuegu guzti horren aurrean ez isilik geratzeko, ikusita herritar zaugarrientzat, osasun arreta jarraipena behar dutenentzat eta herritarrentzat oro har dituen ondorioak.

Arestian aipaturiko arrazoiengatik eta egoeragatik, Oiartzungo Udalari eskatzen diogu ondorengo MOZIOA onartzea eta bere ondorioetarako Osasun Sailera igortzea:

- 1.- Oiartzungo Udalak eskatzen dio Osasun Sailari, herritarrei kalitatezko arreta ziurtatzeko Oiartzungo osasun etxean, ordutegi eta txanda guztietan, beharrezkoak diren espezialitate eta kategoria guztietako osasun profesionalak ezar ditzala, baita medikuak ere. Horretarako, has dadila osasun langileen ordezkariekin batera pertsonal politika eraldatzen eta Osakidetzako mahai sektorialean adosten epe motz, ertain eta luzera begirako neurriak.
- 2.- Oiartzungo Udalak eskatzen dio Osakidetzari, Donostialdeko ESI-rako udako opor sasoiari begira kontingentzia plan propioa definitu eta adostu dezala bertako osasun langileekin.
- 3.- Oiartzungo Udalak eskatzen die Osasun Sailari eta Osakidetzari, Etenik Gabeko Arreta Guneetako eta Osasun Etxeetako zein udalerriko zerbitzuetako ateetan eta iragarki tauletan osasun zerbitzuetan izango den ordutegia eta egongo diren zerbitzuak gardentasunez azaltzeaz gain, komunikabideen bidez ere, aurrez herritarrei jakinaraztea. Horrela, herritarrek momentu oro jakin dezaten nora jo, izan dezaketen gaixotasun edota larritasunaren arabera.
- 4.- Oiartzungo Udalak eskatzen die Osasun Sailari eta Osakidetzari, gaur egungo osasun langileak zaindu ditzala lan-baldintza duinak bermatuz eta opor garaietan sortzen diren hutsuneak betetzeko beharrezko kontratazioak egin ditzala, hutsune horiek ez daitezen gaur egungo profesionalen bizkar gelditu.

2024ko ekainaren 21ean